



+

DESERRIA HAURTZARO

[Maddi Zubeldia](#)

[Bideoa](#)

[Gaia-Kritika](#)

AITZIN-SOLASA(Joseba Aurkenerena)

Burgosko prozesua, Meliton Manzanas hil zutenekoa, haur lapurtuen auzia, lesbianismoa.



LEHEN PARTEA

FRANTZIARA BIZITZERA

14- **Ea ume, eon zaitxe ataixan, garbitxu biar det eta.**

15- Murgiltzea bezalakorik ez da horretarako. Murgiltzea baino, ez itotzea baitzen kasu hartan premiazkoa. Irakasleak ez zion Anari eskatutakoa ematen, ongi ahoskatu arte.

16- Ikasle onaren dirdira erakargarria zuen eta beste haurrak hurbiltzen zitzaizkion jolasera gonbidatzera...

17- ...Ana askotan joaten zen errekarara....Besarkatu ere egiten zituen, azal leunaren kontra belarria jarritz, BERE BIHOTZ TAUPADAK ARBOLAREN HATSAREKIN NAHASTU ARTE....ETXE HARTAN LUIS ZEN KOMERTZIORAKO SENA ZUEN BAKARRA.

19. Amak ez zekien gehiago nondik lotu semearen bihurrikeriei aurre egiteko.

Han bizi ziren Pettan (xurra) eta Katalina, Baigorriarrak.

20- Katalina negarrez, Pettanek ez zuela ezer entzun nahi, BILDOTSAK ESNE HUTSEZ HAZTEN DIRELA ETA HAURRENTZAT BERDIN DELA ZIOEN.

Ze nauzu Pilar, hola da, ez dut FITSIK ITEN AHAL

21- Ikusteuzu, emaztia, esniaekilan aski utela!

22- Zorriez gain, Patricken etxekoek bazuten beste altxorrik: telebista.

23- 1968ko maiatzean han zeuden betiere, baina bazirudien Europa guztia INARROSI zuen oldar uhina Mezo uhartearen ondotik pasatu zela, ziliporta ttanttarik utzi ere egin gabe.

24- Horiek ziren etxe hartako legeak: inor ez da ate aurrean uzten. Sartzeko esaten zaio jendeari. Eta sartu ondoren zerbait eskaini behar zaio.ELKARTASUNA TXIKITATIK ikasi zuten haurrek aitarengandik.

Etxeko arauak: elkartasuna eta euskalduntasuna adierazi beharra

25- Eta momentu hartan bertan, itsasoari begira zegoela, gertatu zen. Lehenik buruko min ikaragarri batek etzan zuen hondar errearen gainera, eta arnasa hartu ezinik egon zen une batez, ingurukoak ohartu ez zirelarik.

AMETS BIDAIK

Bigarren aldiz ematen dio bere gorputzarengandik bereiztearena.(amets-bidaia)

31- Anak ezin zuelarik ezin zuen.???

Jose-Manuel aita, bertsozale

32- Mezoseko etxean benetako esanahia hartzen zuen ZERUKO ARGIA-K

Pilar (Txipi) ama dietarekin tematuta.

33- Gizonak bazituen denentzat EZIZENIK: Pettan artzaia zen, Katalina Mojatxua eta alaba bikiak tirodobliak.

35- Afaldu gabe oheratu zen uztaileko arrats batean gertatu zitzaion bigarren amets-bidaia. ZURZURI

DANIÈLE

USPEL

38- Eta une labur hartan,finkatu zen bi haurren arteko lotura

41- Orduantxe pentsatu zuen Anak jendearekiko atxikimendua neurtzea komeni zela, gehiegi ez sufritzeko gisan, eta gizon gaizto hura hil zedin desiratu zuen.

42- Danieleren amak senarra hilik atzeman zuela ohean atzartzean.

EGUBERRI

45- Ez zen gehiago inoiz aipatu hildako umea....

Eta Eguberri guztiz, mahaira gonbidatzen zen hildako umetxoaren mamua, eta Anak irudikatzen zuen nolakoa izanen zen.

47- Amak Lasturren pasatzen zuen astea, goiez maistra lanak egiten, mutilak lanera irten baino lehen; gero, artaldeak zaintzen, gari lanetan edota jezten aritzen zen janari truke. (Mendaron jaioa: banixe...)

KANDI

49- Eta amets-bidaiak leku eguzkitsu batera eramane zuen

51- Bueno, Mila, vamo ya pa casa! Que pronto llega papi. Mila? Zer zen izen hura?Mila, Milagros, Mirari izena eman zion bere ahizpari atso tzar hark.

MADAME MONGE

Hirurogei urteko Mezoseko elizaren ondoko etxe atsegin batean bizi zen alarguntsa zen. ..etxera gonbidatzen zuen Ana KRAKADARAKO

54- Deskubritu hitza ez zen zuzena (Eta, orduan, MARKESA uharteak Alvaro de Mendaña espainiarrak deskubritu zituela ...) Andreari asko gustatu zitzaion neskata meharren sugarra, dialektikarako gaitasuna gutitan ikusi baitzuen BEDERATZI URTEKO haur batengan.

55- TAU-ak, Markesetako aztiak.

57- Seville et ses monuments: Hantxe zeuden, hantxe, argazki ederretan, berak hain zehazki ikusi,ukitu eta sentitu zituen lekuak.

58- Zuk ahizpatzat duzun neskata hori ez da beharbada zure ahizpa...

Eta atearekin betan itxi zuen Anak elkarriketa, baita bien arteko historiaren liburua ere....Horrelakoa zen Ana: osoa. Dena ala ezer ez.

UDALEKURA

61- HAIZU ez zuten guztia afixa handietan argi utzi ondoren...

Cathy izeneko ilegorriak bazuen LARDERIA

63- Egunak ZIRURIKAN pasatzen ziren

Iheskorrak ziren zorioneko momentuak, hatzen artetik doan area bezain ITZURTIak

...herrestan zihoan denbora BIKETSUan

KORUAN

66- Lehen begiratuan ohartu zen Ana irakaslearen berezitasunaz: itsua zen.

67- XINGOMA zakarontzira, Michele!

Eskolako liburutegiak eskaintzen zuen guztia ikasturte bakarrean irentsi zuen Anak...

69- Anak mahaian plater bat gehitzen zuen, Luisen ondoan, eta Micheleri plazer handia egitearekin batera, neba amorrarazten zuen. Harri batez bi txori!

AZKENEKO AMETS-BIDAIA

71- Lau urte pasa desterratu zirela eta ez zuen lortzen bertako bizimodura usatzen.

BIGARREN PARTEA

2012KO AGORRILAREN 25A, ZIBURUKO HILERRIA.

77- Eta parez pare, hantxe PATARRA beheiti, itsasoa

78- Milak ez du Pilarren besoa askatu, hiletan

79- Alferrik hurbildu zitzaion apezka kontsolatu nahian, kristo guztiak igorri zituen popatik hartzera eta ez zuen elizkizunik onartu Anarentzat.

MILA

86- Hamabost urte zuen ametsa lehendabiziko aldiz egin zuenean. 1970eko udan kokatzen zuen. Gerora jakinen zuen Anaren heriotza garai hartan bertan gertatu zela.

88- Milak ongi hartu zuen ikasgaia 1970ean, Burgosko epaiketak hasi zirenean.

89- **SANGRE, PUTA SANGRE! odolean daramate!**

90-“Ez haiz Mila. Gurea haiz. Kandi

ANAREN KOADERNOA

91- Hortxe, Ziburuko hilerriko aulkian jarrita, USTEZ BETIKO GALDUA ZUEN ALABAREN BURUAREN PISUA SORBALDAN SENTITZEA,,,,

92- Ez baitzuen inoiz heriotza hura onartu, funtsean.

MILA ETA CARLA

94- Neska bat maite dut (Carla) eta harekin bizitzera noa (Mila)

95- Milak AMATU gabeko bizitzari ez zion zentzurik hartzen. Berrogei urterekin, ongi pentsatu ondoren, Milak ADOPZIOA aterabide egokitza hartu zuen

Anna. Hiru urteko neskatila horaila zen Anna eta ametsetako bisitaria gogorarazten zion Milari.

LUIS

98- EFE agentziako Pepe aspaldiko lagunari esker hasi zen dena; zurrumurruaren berri hark eman baitzion Luisi.

Pilarren geneak taldea handitzera joan ziren. Botila itsasora bota zuten, eta mezua jasoko zuenik izango zenez, ezin jakin.

AMAIA

100- Orduan bai. Amets errepikakorra ulertu zuen, orduan. Ana azaltzen zitzaion Ziburuko plazaren gibelaldean dagoen iturri zaharrean, beste neska bat eskutik zeramala....

EPILOGOA

101- Azkenean, Milagros izenak zorte ona ekarri zion! Mila izenak eta Facebookek ere, aitortu behar da...

Carla (Milaren bikote ohia) izan zen puzzle erraldoiaren azken pieza, gakoa.

104- ADN frogara eginaraziko dut. Baina, lehenik, egia errateko aukera eman nahi dizut.

Lapurtutako haur sortu berri horietakoa al naiz?

Aitak: zuzentasunaren izenean egin genuen egindakoa. Besterik ez. Beste guztiak detaileak dira.

Put a sangre la tuya, teniente coronel!

105- HAGUN zuri bezain arinean jauzik ibili da...

[BIDEOAK](#)